

**Ebazpena: A 1/2024**

**Espedientea: 64/2022**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 30a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

## ERABAKIA

Arbitraje Batzordeak 64/2022 gatazkan emandako 104/2023 Ebazpenaren aurka Arabako Foru Aldundiak (aurrerantzean, AFA) aurkeztutako argitze-errekurtsoari buruzkoa.

### I. AURREKARIAK

1.- 2023ko abenduaren 15ean, Arbitraje Batzordeak 104/2023 Ebazpena eman zuen, 64/2022 gatazka ebazten zuena.

2.- Bigarren oinarri juridikoan, Arbitraje Batzordeak honako arrazoi hauek eman zituen: «Estatuko (lurralde) Administrazioak eta Estatuko Administrazio Instituzionalak pertzepzio aktibo zein pasiboengatik lan- edo administrazio-araubideko funtzionario eta enplegatuei egindako ordainketen (alarguntza eta zurztasuna barne) atxikipenak ordainarazteko eskumena Arbitraje Batzordearen ebazpen hauen bidez zehaztu zen: 15/2016 Ebazpena, ESPETXE-LANARI ETA ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARI loturiko 24/2014 gatazkari buruzkoa;

4/2017 Ebazpena, MUFACeri loturiko 10/2015 gatazkari buruzkoa, Auzitegi Gorenaren 2018ko apirilaren 17ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2018:1398) berretsia; eta 137/2022 Ebazpena, ZAEAri loturiko 36/2018 gatazkari buruzkoa, Auzitegi Gorenaren 2023ko urriaren 24ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2023:1313) berretsia. Oso-osorik emandakotzat jotzen ditugu, eta, horien bidez, ondorioztatzen da Estatuko Administrazio Instituzionaleko langileen atxikipen aktiboak nahiz pasiboak ordainarazteko eskumena zehazten duen lotune erabakigarria hartzailearen egoitza dela».

3.- 2024ko urtarrilaren 25ean, AFak argitze-errekurtsoa aurkeztu zuen, honako hau argitzeko: hartzailearen bizilekua da prestazio pasiboen gaineko atxikipenei soilik aplikatu dakiekeen irizpidea, eta zerbitzua edo lana emateko lekua, berriz, prestazio aktiboengatik atxikipenei aplikatu dakiekeena.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66. artikulua (maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartua, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onetsi duena) Arbitraje Batzordeari esleitutako eginkizunak arautzen ditu, hala nola zerga-administrazioen artean gerta daitezkeen desadostasunak ebaztea zergadunen egoitzari dagokionez (66.Bat.c); eta horixe da, hain zuzen ere, 34/2023 Ebazpenak ebazten duen gatazkaren xedea.

Arbitraje Batzordearen ebazpenak egoitza fiskalari buruz dituen ondorioak, ordainarazpen-eskumenaren lotune erabakigarri gisa baliatzen dituen betebeharrak materialei dagokienez, ez datoz bat haren eskumenarekin; aitzitik, Auzitegi Ekonomiko Administrazioari eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari dagokie.

## 2.- Ebazpenak argitzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua arabera —hari egiten dio erreferentzia abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikulua—, Arbitraje Batzordeak oker materialak, aritmetikoak edo egitatezkoak zuzendu ahal izango ditu edozein unetan, ofizioz edo interesdunek eskatuta.

Bestalde, honako hau dio 39/2015 Legearen 88.1 artikulua: «Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira, bai interesdunek agertutako gai guztiak, bai prozedura horretatik eratorritakoak».

## 3.- Lotunea.

AFAk planteatzen duen bezala, egoitza da kasu honetan aplikatu beharreko lotunea prestazio pasiboei dagozkien atxikipenetarako; bestalde, lana egiteko lekua lotunea da prestazio aktiboei dagozkien atxikipenetarako.

## 4.- 50/2022 gatazkan emandako 111/2023 Ebazpenera hedatzea.

50/2022 gatazkan emandako 111/2023 Ebazpenean (bat dator 104/2023 Ebazpenarekin), zehaztugabetasun bera dago, eta, beraz, ebazpen horretarako ere balio du azalpen honek.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

## ERABAKI DU

1.- Aitortzea, 104/2023 eta 111/2023 ebazpenei dagokienez, egoitza prestazio pasiboetarako dagozkien atxikipenentarako bakarrik dela lotunea; bestalde, zerbitzuak ematen diren lekua prestazio aktiboen atxikipenentarako da lotunea.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioaren Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gizarte Segurantzaren Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiari.